

2015/16 ikasturtean, Euskal AEko unibertsitateetan, %0,3 ikasle gutxiago

Ikasketak 13.654 gaztek bukatu zituzten, aurreko ikasturtean baino %2,7 gehiagok

2015-16 ikasturtean 66.830 ikasle matrikulatu ziren Euskal AEko unibertsitateetan, %0,3ko beherakada aurrekoaren aldean, Eustaten datuen arabera.

Graduko ikasleak, guztien %83,5; aurreko urtean baino %2 gehiago. Lizentziatura, arkitektura eta ingeniartzetan, 1.000 ikasle pasa oraindik. Gainerako %15 gradu ondokoetan: masterretan (%+4) eta doktoregoetan (%+0,5).

Lau ikasle hiru unibertsitate publikoan aritu ziren; azken urteetan ehuneko 5,4 puntu gutxiago. Master ofizialetan, ikasleen %60 zentro publikoetan; doktoregoetan %86.

Ikasleen %58 Bizkaian; %29 Gipuzkoan; %13 Araban.

Euskal AEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak, ikasketamailaren arabera. 2015/16 ikasturtea

	Guztira	Gizonak	Emekumeak	Aurreko ikasturtearekiko aldaketa (%)
Guztira	66.830	31.599	35.231	-0,3
<i>Lehen eta bigarren zikloak</i>	<i>1.085</i>	<i>633</i>	<i>452</i>	-63
Lizentziaturak	176	76	100	-87
Arkitekturak eta Ingenieritzak	908	556	352	-41
Diplomaturak	-	-	-	-100
Arkitekturak eta ingeniariaritz teknikoak	1	1	-	-86
<i>Graduak</i>	<i>55.766</i>	<i>26.111</i>	<i>29.655</i>	2
<i>Gradu ondoak</i>	<i>9.979</i>	<i>4.855</i>	<i>5.124</i>	3
Master ofiziala	5.782	2.854	2.928	4
Doktoretza	4.197	2.001	2.196	0,5

Iturria: Eustat. Unibertsitatearen estatistika

Emakumeak %53 dira euskal unibertsitateetan; genero-arraila gutxituz doa

Graduko ikasketetan, ehuneko 6 puntuz, emakumeak gehiago dira; 5 puntuz doktoregoetan eta 1ez masterretan.

Azken sei urteetan, emakumeak %0,3 gutxiago dira eta gizonak %4,4 gehiago.

Ikasketak aukeratzeko orduan bada alderik sexuen artean, oraindik ere

Enpresen administrazio eta zuzendaritzan 5.664 matrikula; Lehen mailako hezkuntzan 3.708; Zuzenbidean 3.453; Psikologian 2.759; Ingeniariaritz mekanikoan 2.305; Haur

hezkuntzan 2.050; Medikuntzan 1.877; Erizaintzan 1.537; Ingeniaritza industria teknologian 1.378; Gizarte hezkuntzan 1.369; Gizarte lanean 1.177; hauen guztien artean, graduko matrikulen erdia dugu.

Gizon artean, erdia 11 karreratan; horietatik 4 ingeniaritzak: Enpresen administrazio eta zuzendaritza (2.808); Ingeniaritza mekanikoa (1.925); Lehen mailako hezkuntza (1.614); Zuzenbidea (1.383); Ingeniaritza industria teknologian (986); Ingeniaritza elektronikoa eta automatikoa (953); Ingeniaritza informatikoa (754); Psikologia (666); Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak (646); Negozioen kudeaketa (604); Medikuntza (567).

Emakumeen erdia zortzi titulaziotan: Enpresen administrazio eta zuzendaritza (2.856); Lehen mailako hezkuntza (2.094); Psikologia (2.093); Zuzenbidea (2.070); Haur hezkuntza (1.795); Medikuntza (1.310); Erizaintza (1.274); Gizarte hezkuntza (1.013).

Ikasketak 13.654 gaztek bukatu zituzten, 2015/2016koan, aurreko ikasturtean baino %2,7 gehiagok; %55, emakumeak


8.709 ikaslek gradua jaso zuten; 929k diploma, lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura teknikoa edo goragokoa; 3.172k master ofiziala; 844k doktoregoa.

Tituludunak goraka aurreko ikasturtearen aldean; gainditutako tesiak, %60 gehiago, 316 doktore gehiago, neurri batean antzinako planak desagertu direlako.

Euskal AEko unibertsitarien erdia ia (%46) gizarte zientzietan eta juridikoetan graduatu zen; ingeniaritzetan eta arkitekturatan %27. Osasun zientzietan %13; arte eta giza zientzietan %8; zientzietan %6.

10 emakumetatik 5 gizarte zientzietan eta juridikoetan graduatu ziren; 1,8 osasun zientzietan; 1,6 ingeniaritzetan. 10 gizonetatik 4 ingeniaritzetan eta 4 gizarte zientzietan eta juridikoetan.

Euskal AEko unibertsitateetan graduatutako ikasleak sexuaren eta ikasketa adarraren arabera (%). 2015/2016 ikasturtea



Iturria: Eustat. Unibertsitatearen estatistika

Unibertsitateko mailak neskek gazteago gainditzen dituzte

Gradua lortzen da 23,5 urterekin, batez beste. Neskek 23,2rekin; mutilek 23,9rekin.

Master bat gainditutakoen batez besteko adina, 26,5 urte. Nesken adina 26,3; mutilena 26,7.

Doktoratuaren batez besteko adina, 38,3 urte; emakumeena 37,5, gizonena 39,2.

Graduko matrikulazioen %27, aurreneko aldikoak

2015/2016koan, 15.299 ikasle aurreneko aldiz matrikulatu ziren graduren batean; "berriak" %27 ziren, aurreko ikasturtean baino %2 gutxiago.

Unibertsitate publikoetan, %-7 ikasle berri gutxiago; halere berrien %72 publikora joan zen eta %28 pribatuetara.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62